

# Gesto por la paz

---

## GEURE IZENEAN

Biktimekiko elkartasunerako VIII. Ekitaldirako agiria

2007.eko abenduaren 23a

Bizia kendu baino askoz ere lehenago, izena kendu zieten biktimei. Asasinatu baino askoz ere lehenago, hustu egin zituzten, inorenganatu ezin den giza nortasunaren ezaugarria kenduz. Heriotza zigorrera kondenatu baino askoz ere lehenago, gorrotoz beteriko hitzez izendatzen zituzten. Izena ezabatzea delako hiltzaileek ematen duten lehenengo urratsa, biktimei gizatasuna kendu eta zorakeria bortitzaren helburu huts bihurtzeko.

Baina, gainera, biktimek berez gizarte osoaren aurka zuzenduta dagoen eraso bortitza jasaten dutenez, beraiei izena kentzea, geureaz jabetzeko saiakera baino ez da. Geure izenean justifikatu eta gauzatu egiten da indarkeriarik bortitzena eta ankerrena. Geure izenean jazarri eta mehatxatu egiten da. Geure izenean mesprezatu eta ahaztu egiten da ezereztu eta menperatu izan diren hainbeste eta hainbeste gizon eta emakumeren samina. Honela, geure izenean jokatzean, indarkeria darabiltenek euren basakerien konplize egin nahi gaituzte.

Hilketen samina geure izenean egiten dela jakitun gaudela-eta, ezin dugu onartu egoera horrek sortzen digun sufrimendua. Horregatik, terroristek gure izenean egin nahi izan duten guztia etengabe gogoratzekoan larritasuna eragiten badigu ere, gure gizartearen birsorkuntza morala gauzatzeko itxaropenerako arrazoi nagusi ere bihur daitezke biktimak. Gaur, hemen, Raúl eta Fernando ETArekin azken biktimak, eta beraien bitartez, biktima guztiak gogoratzea, ez da merezi duten aitortpena eta elkartasuna adierazteko bakarrik, gizarteari laguntzeko baizik, bere izenean hitz egiteko, indarkeriari zilegitasuna kentzeko, biziaren balioa defendatzeko eta bake eta askatasunez jantzitako bizikidetasuna sustatzeko. Biktimen izena berreskuratzean, euren giza duintasuna berreskuratzen dugu, eta bide batez indarkeria darabiltenek kendu nahi diguten geure izena ere berreskuratuko dugu.

---

Bizkaia: Apdo. Correos 10152 48080 BILBAO. Tfno. 94 4163929 Fax 94 4153285

Alava: Apdo. Correos 2063 01080 VITORIA GASTEIZ Tfno. y Fax 945 226838

Gipuzkoa: Apdo. Correos 5005 20080 DONOSTIA Tfno. y Fax 943 290000

Navarra: Apdo. Correos 176 31080 PAMPLONA Tfno. y Fax 948223135